

Jaietan ere LGTBI+

Jaiguneetan sexu eta genero
aniztasunari buruzko gidatxoa



KATTALINGUNE LGTBI+

Servicio Público del Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuako Zerbitzu Publikoa

Subvenciona / Lagunduta:



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institua

www.igualdadnavarra.es



Gidatxo hau prestatu da jaiguneetan kontuan har daitezen **genero eta sexu aniztasuna**.

Honen helburua da, batetik, sentsibilizatzea eta, bestetik, **tratu ona** eta zainketen etikari arreta ematea.

Tresna gisa aurkezten da, lagungarri izan dadin hausnarketa egin dezagun LGBTBI+ pertsonen espazio horietan jasaten dugun gaitzespenaz eta diskriminazioaz.

Herriko jaiak aukera handia dira sozializatzeko, aisialdirako, jostetarako, adierazpenerako, geure izaera kanporatzeko... baina batzuetan desparekotasun eta bazterketa egoerak ere sor daitezke.

Beraz, beharrezkoa da sexu eta genero aniztasuna balioestea eta lantzea, **gizartean berdintasuna** sortzeko.

Ezinbestekoa da sustatzea **errespetuzko eta erasorik gabeko jaiak**, non LGBTBI+ jendeak ez duen sentituko segurtasun faltarik eta lotsarik.





Sexu eta genero aniztasuna, zertaz ari gara?

Izateko, sentitzeko, desiratzeko eta nor bere burua adierazteko dauden modu orotaz ari gara.

LGBTI+, BALIOGARRIAK eta BALIOTSUAK diren aukera amaigabe hauen parte dira.

Jakin ezazu zure burua libreki adieraztea eskubide unibertetsala dela.

Hori dela eta, jai eremuak gune inklusiboak izan daitezen sustatzeko ahalegina izugarri garrantzitsua da, alegia:

✓ Sexu eta genero aniztasuna ikusgarria den guneak eratu.

✓ Elkarrekiko zaintza eta errespetua guztion ardura diren guneak bultzatu.

✓ LGBTI+ kolektiboa errespetatzen ez duen edozein adierazpen fisiko zein ahozkoaren aurrean gaitzeppen jarrera aktiboa erakusteko gai diren guneak sortu.

✓ Finean, libreki sentitzeko, izateko, desiratzeko eta zure burua adierazteko guneak eraiki.



Kontzeptuetaz hitz egin dezagun...

- **Identitate sexuala:**
Nor naiz ni? Pertsona bezala identifikatzen naizen sexuari egiten dio erreferentzia: emakumea, gizona, *ez binarioa: gizon eta emakume kontzeptuekin identifikatzen ez diren pertsonak.
- **Orientazio sexuala**
Nor gustoko dut? Nire desira erotikoa (gehienbat) zein sexueta hartzen duen norabidera egiten dio erreferentzia.

Zer da LGTBI+...Q?

L = Lesbiana. Hitzaren jatorria Lesbos irlatik (Grezia) dator eta beste emakume batzuk desiratzen dituzten emakumeak dira.

G = Gay. Ingeleraz "alai" esan nahi du eta beste gizon batzuk gustoko dituzten gizonak dira.

T = Transexual. Transexuala. Jaiotzean esleitu dioten sexuarekin identifikatuta sentitzen ez den pertsona.

B = Bisexual. Gizonak bezain emakumeak desiratu ahal dituen pertsona.

I = Intersexual. Arauen arabera zakil eta alu bat bezala definituta dauden genitalekiko ezberdintasunak dituzten pertsonak dira.

+ LGTBI siglekin identifikatzen ez diren identitate eta orientazio sexual guztiei egiten die erreferentzia.

¿Y la Q? Queer

Sexu eta genero identitate eta orientazioari dagokienez, ezarrita dagoen eredu egituratuarekin identifikaturik sentitzen ez diren pertsoneri egiten die erreferentzia.